



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50-Etxabea – 48004 Bilbo

Telefonoa 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97

www.eif-fvn.org

01 / 2025-2026 ZIRKULARRA

EUSKADIKO LIZENTZIEN IZAPIDEAK **2024-2025 DENBORALDIA**

Jarraian azaltzen da denboraldi honetako lizentziak bideratzeko eta bidaltzeko prozesua. Gogoraraztea denoi erabat debekatuta dagoela txapelketa OFIZIALETAN parte hartzea, dagokion eta indarrean dagoen EUSKADIKO FEDERAZIO LIZENTZIARIK gabe, zeinek Lurralde Federazioan eta Euskadiko Federazioan adskribituta egotea suposatuko duen, arau honen konplimendu eza Klubaren eta Lurralde Federazioaren ardura izanik (EIF-FVN-ren Estutuetako II. Izenburua - 9. Art. eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31eko 16/2006 Dekretuaren 23. Art. eta hurrengoak).

Klubek lizentziak bideratu ahal izango dituzte denboraldiko une orotan, indarrean dagoen prozedurari jarraiki. Indarraldia 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era artekoa da. Hala ere, lizentziak **txapelketa ospatu baino 15 egun lehenago, gutxienez**, bideratu beharko dira eta, nolana ere, inskripzioak formalizatu aurretik. Dagokion Lurralde Federazioa eta EIF-FVN bere kasuan, lizentzia ukatzeko moduan izango dira, epe hori zehazki betetzen ez bada, edo aurreko denboraldietan sortutako fakturak ordaindu ez izana.

Edozein modalitatetako lagapen bat izapidetzeko, EIF-FVNren Batzarrean kirol egutegia aurkezten denetik egutegiko hogeita hamar (30) egun igaro baino lehen eskatu behar da Federation.

Denboraldi honetatik aurrera, eta datuak babesteko araudia betetzeko titularrak zuzenean eskatu beharko du lizentzia (kirolaria, guraso arduraduna, teknikaria, ordezkaria, arbitroen taldea...), eta Federatio plataformaren bidez aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Klubak arduratuko dira erabiltzaileen lizentzia-eskaerak baliozkotzeaz.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

1. NAN, AIZ edo pasaportea (lizentzia guztietan): ez da nahitaezkoa 14 urtetik beherakoentzat
2. Legezko mediku-ziurtagiria edo -azterketa: kirolarientzat eta masterrentzat



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50-Etxabea – 48004 Bilbo

Telefonoa 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97

www.eif-fvn.org

3. Teknikariaren titulua: teknikarientzat. Honako titulazio hauetakoren bat eduki beharko da:

- Monitorea, Entrenatzaile Laguntzailea edota Goi Mailako Entrenatzailea, EIF-ren titulazioak.
- I. mailako Entrenatzailea, II. Mailako Entrenatzailea edo III. Mailako Entrenatzailea, Euskadiko Kirol Eskolak emandako titulazioa (Eusko Jaurlaritzaren tituluak).

99/10/2an egindako Batzarrean hartutako erabakiaren bidez, klubek teknikariaren lizentzia izapidetzean kontuan izan beharko dute gutxienez horietako batek II. mailako entrenatzaile laguntzaile titulua izatea.

4. Sexu-delituen ziurtagiria: estamentu tekniko, arbitro eta taldeburuentzat, interesdunari buruzko informazio penalik EZ dagoela ziurtatzen duena.

5. Datuak babesteko dokumentua beteta eta sinatuta (lizentzia guztietan).

6. Kirolari adingabearen lizentzia eskatzerakoan, nahitaezkoa izango da “Representante legal” eremua betetzea, aitaren, amaren edo legezko tutorearen izen-abizenekin eta NANarekin.

Ez da inolako lizentziarik bideratuko, aurreko bi ataletan adierazia ERABAT betetzen ez bada.

Federatio-ra sartzeko: <https://intranet.rfen.es/>

Tutorialetarako sarbidea Federatiora sartzeko, erabiltzaile bat eskatzeko eta lizentzia bat eskatzeko, eta FAQ: <https://rfen.es/informacion/tutorialesfederatio/>

LIZENTZIEN KUOTA

Denboraldi honetarako ondorengo kuotak ezartzen dira lizentzia bakoitzeko, dagokion Lurralde Federazioak EIF-FVN-ri ordainduko diona.

LIZENTZIA KUOTA: 67 €, ondorengo kontzeptuengatik: EIF-FVN-ren eta dagokion Lurralde Federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko, titularraren osasun arriskuak estaliko dituen asistentzia sanitario derrigorrezko aseguruaren kostearentzako,



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50-Etxabea – 48004 Bilbo

Telefonia 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97

www.eif-fvn.org

erantzukizun zibilarentzako eta heriotzagatik eta anatomia zein funtzio galerak direla eta kalte-ordainetarako.

2. JARDUERAK: 37 €, bigarren jardueratzat hartuko da KLUB BERAREKIN jadanik lizentzia bat eskuratua izanik, eskatzen den hura.

Lizentzia eskatzen denean 1. LIZENTZIARENA ez den BESTE KLUB BATEKOA, xede guztietarako 1. lizentzia bezala kontsideratuko da, 67 €-ko kopurua ordaindu behar izanik (edo EIF-FVN-ren batzordeak erabakitzen duena).

Arbitroen kasuan, Lurralde Federazio bakoitzeko Lurralde Batzordeek Klubaren tratamendua izango dute.

Arbitroaren eta txapelketa laguntzailearen Lizentzien kuota **25 €**-koa izango da, beste jarduera batean lizentziarik indarrean izaten ez dutenean (kasu honetan, kuota 0 €-koa izango da).

LIZENTZIEN ORDAINKETA: Klubek dagokien Lurralde Federazioari egingo diote ordainketa, adierazten zaien bezala; horiek hilerik likidatuko dituzte EIF-FVNrekin kontzeptu horiengatik zor dituzten zenbatekoak.

Lizentzien hileko ordainketari dagokionez Lurralde Federazioek eginiko konplimendu ezak dagozkion lizentziak ez bidaltzea eta horretatik eratorri ondorioak ekarriko ditu.